

**INGELEASEAN MURGILTZEKO
UDALEKUAK
SANTO DOMINGO DE LA CALZADA
ERRIOXA**



INGELESEAN MURGILTZEA

SANTO DOMINGO DE LA CALZADAN. (ERRIOXA)

ADINA: 8 URTETIK 14 URTERA BITARTE

Noiz
<u>1. aukera:</u> Uztailaren 2tik 13ra
<u>2. aukera:</u> Uztailaren 2tik 17ra
<u>3. aukera:</u> Uztailaren 16tik 27ra

Santo Domingo de la Calzadako udalekua jarduera ezin hobea da uztailerako, ikaskuntza eta dibertsioa uztartzen ditueneguz ingurune hurbil eta familiarrekoan.

Primerako udalekuak dira ikasteko, gozatzeko eta lagun ugari egiteko.

MENESIANOS IKASTETXEA. SANTO DOMINGO DE LA CALZADA

Udalekuak **Menesianos** ikastetxe-egoitzan egiten dira



Menesianos ikastetxe-egoitzak hainbat baliabide ditu, adibidez, ikasgela guztiak daude pantaila digitalez hornituak, eta baditu ekitaldi-areto bat eta informatika-gela bat ere.

Horrez gain, gimnasioa, jolas-aretoa, pilotalekua, futbol, eskubaloi eta saskibaloi zelaiak eta berdegune zabala ditu zentroak.

Ikastetxea Errioxan dago, Logroñotik 45 bat minututara eta Santo Domingo de la Calzadatik 2 kilometrotara.



MURGILKETAREN HELBURUAK

PARTE-HARTZAILEEK HIZKUNTZAREN OINARRIZKO 4 TREBEZIAK finkatu eta HOBETU ditzatela lortzea, bereziki azpimarraturik komunikazioaren alderdia: AHOZKO ULERMENA, AHOZKO ADIERAZMENA. Horrez gain, IDATZIZKO ULERMENA ETA IDATZIZKO ADIERAZMENA ere lantzen dira, eta HIZTEGIA ETA GRAMATIKAKO EZAGUTZAK HANDITZEN dira.

Horregatik, murgilketaren barruan proposatutako jardueretan, komunikazioa ingelesez egingo da:

- Ingelesa erabiliko da komunikatzeko hizkuntz gisa egunean zehar egiten diren jarduera guztietan.
- Astialdiko jardueretan (jolasak, kirolak, gau-jaiak, festak, txangoak...) praktikara eramango da eskola-saioetan ikasitakoa.

Kontuan harturik europar esparruko maila desberdinak, gure helburua da taula honetan jaso diren mailak lortzea.

HASIERAKO MAILA	AMAIERAKO MAILA
A1.	A1.2
A1.2	A2
A2	A2.2
A2.2	B1
B1	B1.2
B1.2	B2
B2	B2.2

METODOLOGIA

Metodologia aktibo eta dinamikoa da, eta ikasle-ikasle nahiz ikasle-irakasle arteko komunikazioan datza haren funtzio nagusia.

Komunikazio hori arrakastatsua izan dadin, ikaslea hizkuntza erabiltzera behartzen duten hainbat jarduera jartzen ditugu martxan. Beraz, lana binaka eta taldeka egiteko aukera ematen duten jarduerak landu eta indartuko dira. Abian jartzen ditugun jardueren artean:

Jarduerak talde txikitan irakaslearekin. Maila baxuagoko taldeak.
4 ikasleko taldetan egiteko jarduerak. Jarduera bat astean.

My English Passport.

Ikasle bakoitzak "pasaporte" bat jasotzen du murgilketan zehar osatu beharreko jarduera guztiekin. Egunero, eta jarduerak gauzatu ahala, pixkanaka pasaportea bete eta bisak jasoko ditu ikasleak.

Proiektuak

Hainbat proiektu gauzatzen ditugu:

- Be a blogger.
Azken helburua: murgilketari buruzko bloga egitea.
- Master Chef
Azken helburua: hainbat errezeta prestatzea. Adibidez, txokolatzeko gozoki makildunak egitea.
Lehiaketa eta errezeta onenaren saria. Bideo batean jasotzea errezeta guztiak.
- Be an artist.
Azken helburua: haien talde edo abeslari gogokoenari buruzko posterra/aurkezpena egin dezatela.

Materialak eta baliabideak.

Teknologia berriak baliatzen ditugu ikasleak aktiboki inplikatzeko.

Era askotako multimedia-baliabideak erabiltzen ditugu, besteak beste, bideoa, bideo-jokoak, Internet, software-materiala eta abar.

Zentroak hainbat informatika-laboretegi ditu eta haietan ikasle bakoitzak ordenagailu bat izango du eskura

Programa akademikoan 5 eskola-ordu irakasten dira egunean, sorterriko zein bertako irakasle tituludun eta eskarmentudunekin. Ikasleek sorterriko begiraleekin batera egiten dituzte jarduera guzti-guztiak, eta haiek hizkuntza erabiltzeko bultzada eta laguntza ematen diete.

Taldeak: gehienez ere 12 ikasle talde bakoitzeko.

Taldeak parte-hartzaileen maila kontuan harturik antolatzen dira.

Maila zehazteko testa murgilketa hasi aurretik egiten da.

Aurretiazko informazio-bileran, murgilketan zer helburu eta eduki landuko diren jakinarazten zaie familiei.

Eskola-saio baten egitura

Saioaren aurkezpena

Irakasleak saio horretan egingo diren jarduerak eta saioaren azken xedea (zer helburu lortu nahi ditugun saio horretan) aurkezten ditu.

Warming up games. (Berotzeko jarduerak)

Aurreko egunean egindakoa berrikusteko jolasak, lehiaketak eta abar planteatzen dira.

Egingo den saioarekin zerikusia duten hiztegi-jolasak eta ahoskatzeko ariketak egiten dira.

Ikasleei jarduera gauzatu ahal izateko behar dituzten tresnak ematea da kontua.

Saioaren atal nagusia

Hizkuntzaren alderdiak lantzen dira.

Trebezien arteko oreka gordetzen duten hainbat jarduera antolatzen dira:

Ahozko ulermena
Ahozko adierazmena
Idatzizko ulermena
Idatzizko adierazmena
Gramatika eta hiztegia

Amaierako jarduera

Ikasleek aurreko jardueretan ikasitakoa praktikara eraman ahal izateko jarduerak planteatzen dira.

Saioaren ebaluazioa

Irakasleak eta ikasleek egin diren jarduerari buruzko oharak egiten dituzte.

Ikasleek jarduerak baloratzen/ebaluatzen dituzte.

Ikasleek esapide edo hitz berriak idazten dituzte.



JARDUERA PROGRAMA

Programa akademikoaren osagarri, **erabateko murgilketa lortzeko aukera emango diguten tailerrak, astialdiko jarduerak, jolasak, gau-jaiak, bideoak eta abestiak egiten dira..**

Era askotariko kirol-jarduerak antolatzen ditugu: **paintball**, arku-tiroa, igeriketa, **arrauna**, **eskalada**, mendi-ibiliak eta beste hainbat.



Gure jarduera programan gune interesgarrietara joateko txangoak sartzen ditugu. **Egun osoko 2 txango.** (Logroño, ur-parkea)

Eta azkenik, gure **festak eta gau-jaiak**, 21:30etik 23:00etara, abestiak, dantza-lehiaketak, kanpoaldean egiten diren gau-jolasak eta beste hainbat jarduera barne.

FESTAK ETA GAU-JAIK

Eta azkenik, gauetan, karaokeak, dantza-lehiaketak, kanpoaldean egiteko gau-jolasak, mozorro-jaiak, Oscar sarien gaua eta beste hainbat jarduera antolatzen ditugu **festa eta gau-jaietan.**



Ohiko egun bat

08:30-09:00	☕ Breakfast/ Gosaria ☺ Good morning activity
09:00-11:00	English Session
11:00-11:30	Break/ Atsedena
11:30-13:30	English Project Session Work on skills
13:30-15:00	☕ Lunch/ Bazkaria
15:00-16:00	Communication games/ Komunikazio-jolasak
16:00-17:30	Art option/ Tailerrak
17:30-18:00	☕ Afternoon snack/ Askaria
18:00-19:00	🚴 Sports/ Kirolak
19:30-20:30	Free time/ Denbora librea
20:30-21:30	☕ Dinner/ Afaria
21:30-23:00	☺ Evening activities/ Gaueko jarduerak: festak, jolasak, lehiaketak, abestiak, ...
23:00-	🛏 Time to go to bed/ Ohera joateko ordua

Haur guztiek ahalik eta gehien parte har dezaten murgilketa honetan ingelesez egingo diren jarduera guztietan, eta ez saioetan soilik, txartel batzuk ematen zaizkio parte-hartzaile bakoitzari, eta bertan azaltzen da zer egoera eta metahizkuntzako zer esapide erabili behar dituen.

Bai eskoletako jardueretan bai eskolez kanpokoetan ingelesa erabil dezatela sustatzeko, oparitxo batzuegatik truka daitezkeen ezkutuen sistema baliatzen dugu. Murgilketak eta udalekuak antolatzen eman ditugun urteetan, sistematikoki erabili izan dugu indargarri positiboko sistema hori, eta frogatuta geratu zaigu baliagarria dela ingelesez aktiboki parte hartzera motibatuzeko elementu gisa.

In the classroom

- What does *it* mean?
- How do you say *it* in English?
- I don't understand
- Can I borrow your pencil, please?
- My pencil doesn't work.

In the games

- I'm the winner. ✌️
- It's my turn. You miss a turn.

In the dining-room

- Could you pass me the butter/, please?
- Here you are. Thank you
- Can I have some more, please?
- It's enough. Thank you.
- Enjoy your lunch

FAMILIENTZAKO INFORMAZIOA

Murgilketa hasi aurretik, **informatzeko bilera** bat antolatzen da murgilketan parte hartuko dutenen familiekin, udalekuen helburuei, programazioari eta jarduera-programari buruzko xehetasunak emateko. Horrez gain, haien seme-alaben tutorearen/irakaslearen izena eta harremanetarako zenbaki bat jakinarazten zaie. Bilerara bertaratu ezin direnei posta bidez bidaltzen zaie informazioa.

Gainera, familia guztiek posta elektronikoko helbide bat dute, eta hortxe kontsultatu ditzakete murgilketa hasi aurretik eta egin bitartean sor daitezkeen zalantza guztiak.

Udalekuetan, beren seme-alabak zer jarduera egiten ari diren ikusi ahal izango dute familiek www.mondragonlingua.com blogean.

TALDEAK

Hainbat talde antolatzen dira, parte-hartzaileen mailaren arabera eta europar esparruaren irizpideei jarraikiz. Mailak A1.1, A1.2 A2 eta B1 izan daitezke.

A.1.1	<p>MATERIALAK</p> <p>TEXT BOOKS: New Challenges Starter VIDEO: New Challenges Starter/ English channel 1 SOFTWARE: English Grammar 1 LINKS: http://conteni2.educarex.es/?e=2</p>
HELBURUAK	
<p>Ahozko ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea testu luze eta erlatiboki zailak ulertzeko gai izatea. <p>Ahozko adierazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea galderak egiteko gai izatea. Ikaslea eskolan landutako gai bati buruz hitz egiteko gai izatea, gainerako ikaskideen aurrean. <p>Idatzizko ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea 500 hitz inguruko hiztegi-aberastasuna duten testu idatziak ulertzeko gai izatea. <p>Idatzizko adierazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea 100 hitz inguruko hiztegi-aberastasuna duten testu mota desberdinak idazteko gai izatea. <p>Lanak egitea / Jardueretan parte hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea erabakiak hartzeko gai izatea. Ikaslea bere ikasketaz arduratzea. Ikaslea bere lana antolatzeko gai izatea. Ikaslea begirunetsua izatea eta gainerako ikaskideekin elkarlanean aritzea. Ikaslea taldean lan egiteko gai izatea. <p>Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasleak ingelesaren aldeko jarrera izatea. 	
EDUKIAK	
<ul style="list-style-type: none"> Present simple Adverbs of frequency Question words Object pronouns Present continuous Can/can't Countable/uncountable nouns Some/any How much/ how many? 	<ul style="list-style-type: none"> Past simple Could/couldn't Prepositions Comparatives/ superlatives Going to Future time expressions Must/mustn't Will Should/shouldn't

<p>A.1.2</p>	<p>MATERIALAK</p> <p>TEXT BOOKS: New Challenges 1 VIDEO: New Challenges 1/ New Headway Elementary SOFTWARE: English Grammar 2 LINKS: http://conteni2.educarex.es/?e=2</p>	
<p>HELBURUAK</p>		
<p>Ahozko ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea testu luze eta erlatiboki zailak ulertzeko gai izatea. <p>Ahozko adierazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea eskolan landu diren gaiei buruzko elkarrizketan parte hartzeko gai izatea. Ikaslea eskolan landutako gai bati buruz hitz egiteko gai izatea, gainerako ikaskideen aurrean. <p>Idatzizko ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea 700 hitz inguruko hiztegi-aberastasuna duten testu idatziak ulertzeko gai izatea. <p>Idatzizko adierazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea 100 hitz inguruko hiztegi-aberastasuna duten testu mota desberdinak idazteko gai izatea. <p>Lanak egitea / Jardueretan parte hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea erabakiak hartzeko gai izatea. Ikaslea bere ikasketaz arduratzea. Ikaslea bere lana antolatzeko gai izatea. Ikaslea begirunetsua izatea eta gainerako ikaskideekin elkarlanean aritzea. Ikaslea taldean lan egiteko gai izatea. <p>Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasleak ingelesaren aldeko jarrera izatea. 		
<p>EDUKIAK</p>		
<ul style="list-style-type: none"> Present simple Present continuous Adverbs of frequency Present tense contrast Past simple Could/couldn't Time expressions Was/were Past continuous Have to 	<ul style="list-style-type: none"> Some and any Much, many, a lot of Comparatives/superlatives adjectives Too/enough Present perfect For and since How long Will First conditional Present passive 	

<p>A.2</p>	<p>MATERIALAK</p> <p>TEXT BOOKS: New Challenges 2 VIDEO: New Challenges 2/ English Channel 2/ Headway Pre-Intermediate. SOFTWARE: English Grammar 3 LINKS: http://conteni2.educarex.es/?e=2</p>	
<p>HELBURUAK</p>		
<p>Ahozko ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea testu luze eta erlatiboki zailak ulertzeko gai izatea. <p>Ahozko adierazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea galderak egiteko eta eskolan landutako gaiei buruz hitz egiteko gai izatea. <p>Idatzizko ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea 800/1000 hitz inguruko hiztegi-aberastasuna duten testu idatziak ulertzeko gai izatea. <p>Idatzizko adierazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea 120 hitz inguruko hiztegi-aberastasuna duten testu mota desberdinak idazteko gai izatea. <p>Lanak egitea / Jardueretan parte hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea erabakiak hartzeko gai izatea. Ikaslea bere ikasketaz arduratzea. Ikaslea bere lana antolatzeko gai izatea. Ikaslea begirunetsua izatea eta gainerako ikaskideekin elkarlanean aritzea. Ikaslea taldean lan egiteko gai izatea. <p>Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasleak ingelesaren aldeko jarrera izatea. 		
<p>EDUKIAK</p>		
	<p>Present simple vs Present continuous Past simple Question words Subject and object questions Like/hate ing Past Continuous Past simple vs past continuous Used to Present Perfect already/yet/since/for Past simple vs present perfect</p>	<p>Comparative/superlative Not asas Expressing result: so and such</p> <p>Will/ Going to First conditional Second conditional Passive Relative Clauses Reported Speech</p>

<p>B1</p>	<p>MATERIALAK</p> <p>TEXT BOOKS: Code Blue VIDEO: New Challenges 3/ Headway Pre-Intermediate/ Headway Intermediate SOFTWARE: English Grammar 3 LINKS: http://conteni2.educarex.es/?e=2</p>	
<p>HELBURUAK</p>		
<p>Ahozko ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea testu luze eta erlatiboki zailak ulertzeko gai izatea. <p>Ahozko adierazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea galderak egiteko eta eskolan landutako gaiei buruz hitz egiteko gai izatea. <p>Idatzizko ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea 2000 hitz inguruko hiztegi-aberastasuna duten testu idatziak ulertzeko gai izatea. <p>Idatzizko adierazmena</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea 120/180 hitz inguruko hiztegi-aberastasuna duten testu mota desberdinak idazteko gai izatea. <p>Lanak egitea / Jardueretan parte hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikaslea erabakiak hartzeko gai izatea. Ikaslea bere ikasketaz arduratzea. Ikaslea bere lana antolatzeko gai izatea. Ikaslea begirunetsua izatea eta gainerako ikaskideekin elkarlanean aritzea. Ikaslea taldean lan egiteko gai izatea. <p>Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasleak ingelesaren aldeko jarrera izatea. 		
<p>EDUKIAK</p>		
<ul style="list-style-type: none"> Present tenses (simple, continuous, perfect) Multi-part verbs State and active verbs USED TO and WOULD (habits in the past) Past perfect Present perfect continuous Collocations Compound adjectives The passive 	<ul style="list-style-type: none"> Function: opinions, agreeing and disagreeing Have/Get something done The future Modals for speculation Conditional review; Third Conditional WISH and SHOULD HAVE Reported requests and orders; reported statements Reported questions Verbs followed by <i>-ing</i> form or infinitive 	

AURRERABIDEAREN TXOSTENA ETA ZIURTAGIRIA

Murgilketa amaitutakoan, parte-hartzaileei **aprobetxamenduaren ziurtagiri** bat ematen zaie, eta familiei lortutako maila jasotzen duen **txosten** bat bidaltzen zaie.

Orobat, **asebetetze-mailari buruzko galde sorta** bat egiten zaie hala ikasleei nola familiei.

JARDUEREN JARRAIPENA

Egonaldian zehar kalitate-kontrolak egingo dira murgilketa ezarritakoaren arabera gauzatzen ari dela ziurtatzeko eta, behar izanez gero, zer arlotan hobetu behar den finkatuko da.

Murgilketa amaitutakoan, asebetetzeari buruzko galde sorta bat egingo da parte-hartzaileen asebetetze-maila ezagutzeko.

OSTATUA ETA BAZKARIA

Bost zerbitzu hartzen ditu barne: gosaria, zizka-mizka jolasaldian, bazkaria, askaria eta afaria.

Ikastetxeak bazkariak egiteko ekipoa du. **Etxeko janaria** da eta ikastetxean bertan egiten da, produktu naturalekin.

Lau zerbitzu hartzen ditu barne: gosaria, bazkaria, askaria eta afaria.

Ostatua birentzako gela partekatuetan ematen da.

Barne hartzen du garbitegi-zerbitzua. Astean behin.

IRAKASLEAK

Gure lantaldea honako hauek osatzen dute:

- **Koordinatzaileak** unibertsitateko titulua du, eta esperientzia handia udalekuak egiten.
- **Irakasle - Begirale taldean** sorterriko eta bertako kideak daude; guztiak dute lizentziatura edo diplomatura titulua, baita eskarmentu handia ere.

Prezioan honako hauek sartzen dira:

- Ostatua mantenu osoan.
- Ikasmaterialak.
- Aprobetxamenduaren ziurtagiria eta txostena.
- Parte-hartzaileei asebetetze-inkestak egitea.
- Maila zehazteko testa murgilketa hasi aurretik eta amaitu ondoren.
- Ikasleen eskura dauden materialen erabilera.

- Aisialdiko jardueretan parte hartzea.
- Joan-etorriko bidaia. Autobusezko bidaia Bilbotik, Donostiatik, Gasteizetik eta Arrasatetik.
- Murgilketan egiten diren bidaietan lagun egiteko norbait.
- Egun osoko 2 txango.
- Erantzukizun zibileko eta istripuetarako aseguruua.
- Murgilketa hasi aurretik informazio-bilera egitea.
- Murgilketa ondo doala egiaztatzeko jarraipena, murgilketan zehar.

